

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iruñeak eta Pauek beraien biltzar-jauregien arteko lankidetzaz sustatzearen aldeko apustua egin dute

MICE Turismoan, gaitasun-trukean eta kultur zabalkundean elkarlanean ariko dira

Osteguna, 2016.eko uztailak 14

Iruñeko *Baluarte* eta Paueko *Palais Beaumont* biltzar-jauregiek beraien indarrak proiektu komun batean elkartzea erabaki dute, eta proiektu hori Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020 Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen (POCTEFA) hurrengo deialdian aurkeztuko dute. Paueko ordezkariak batek Iruña bisitatu du egun hauetan, eta lan-bilera bat egin dute Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerekin eta Nafarroako Turismoko eta Baluarteko arduradunekin.



Iruñeko Baluarte eta Paueko Palais Beaumont biltzar-jauregiak ordezkariak.

ACADEMICE izeneko proiektua honako hauetan oinarritzen da: lotura historikoetan (lehengo Nafarroako Erreinua), antzeko lurralde-eskala batzuetan (Iruña eta Paue Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako bi hiri-aglomerazio nagusiak dira), *MICE* merkatu oso lehiakorrean elkarrekin lehiatzeko beharrez Pirinioetako lurraldeari lotutako marka komun baten baitan, eta garatu beharreko balizko puntu komunak dituzten errealitate sozio-kultural eta ekonomikoen existentzian.

Ekintza nagusiak

ACADEMICE hiru urtetan garatuko da (2017-2019), eta 2,8 milioi euroko aurrekontua izango du. Baluarteko enpresa kudeatzailea buru dela, Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio – NICDO SL, proiektua oinarrituko den ekintza nagusiak honako hauek dira:

-Helmugaren sustapen bateratu bat edo lurralde-marketineko estrategia bateratu bat erakitzea. Negozio-turismoko irudi bateratu bat garatzea da kontua, Iruña eta Paue lurralde komun baten helmuga gisa aurkeztuz, mendebaldeko Pirinioak. Ekintza horretan, besteak beste, elkarrekin egindako komunikazio-jarduerak garatuko dira, euskarriak, baterako salmenta-gidak sortzea, sustapen partekaturako datu-baseak trukitzea, *famtrips* (familiarizazio-bidaia), bi helmugetako sustapen-ekitaldietako partaidetza gurutzatua eta lankidetzaz publiko-

privatuko arloan jardunbide egokiak trukatzeara.

-Trukea, mutualizazioa eta ekitaldiak sortzea: bi lurraldeetako itzulkin ekonomikoak lortzeko asmoz eta maila ekonomikoan zeharkako lankidetzara erabat sakontzeko, Baluarte eta Palais Beaumontek helmugan arteko ekitaldien mutualizazio-prozesuak partekatuko dituzte (Pirinioetako Zinema Jaialdia, motor-ekitaldiak, Navariderday esaterako, eta beste era bateko ekitaldiak), eta bi helmugan artean txandakatuko diren baterako ekitaldiak sortzeko lanean arituko dira, honako hauen arteko trukea erraztuz: sustatzaileak eta antolatzaileak, babesleak, erakusketariak, hizlariak eta bertaratutako jendea.

-Prestakuntza eta enplegugarritasuneko gaitasunak hobetzea eta trukeak egitea kalitate, erantzukizun sozial korporatibo eta garapen iraunkorraren arloetan. Hirugarren zutabe honen helburua bi biltzar-jauregi horien egungo jardunbideak hobetzea da profesionaltasun, gaitasun-hobekuntza eta ingurumen-kudeaketaren arloetan, eskaintza komunaren desberdintzeko eta emandako zerbitzua hobetzeko elementu gisa. Horretarako, langileak trukatzeara aurreikusten da, Pirinioetako bi aldeetan ikasleek praktikak egitea, labelak harmonizatzea, eta inbertsioak egitea, kalitatearen hobekuntzara, efizientzia energetikora eta bi biltzar-jauregiaren iraunkortasunera bideratuta.

-Kultur ekitaldien inguruan mugaz gaindiko eskaintza komun bat sortzea. Lankidetzara oinarritutako den hirugarren zutabe honetan, kultur ekintzen eskaintzaren elkarrekiko aberastasuna da helburua eta sektoreko tokiko eta eskualdeko artistak eta erakundeak zabalteko aukera berriak sortzea, bai eta lankidetzako sareak ere. Proiektu honekin lankidetzarako esparru ireki bat sortuko da; hari esker, trukearako erraztasun handiagoa izango da (musika-jaialdiak, literaturakoak edo zinema-jaialdiak), eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren eta Pau-Pays del Bearn orkestraren arteko produkzioen proiektuak eta aldeko lankidetzak azpimarratu behar dira.

Proiektu guztia Iruña eta Paue hirien zeregina sustatzeko asmo partekatuan oinarritzen da, hau da, kultura eta negozioen turismoko helmuga gisa. Oro har, Baluarte eta Palais Beaumontek urtean 600 jardueratik gora hartzen dituzte (obra artistikoak, biltzarrak, azokak, bilerak), eta 600.000 lagun baino gehiago. Bi zentroen jarduerak guztira 25 milioi bat euroko inpaktu ekonomikoa du.

Frantziako ordezkariak honako hauek osatu dute: Paue eta Eskualdeko Zerbitzuen zuzendari nagusi Nicolas Pernotek; Palais Beaumont eta SEM Zénith-ko zuzendari nagusi Hugues Verrier-ek; l'Orchestre de Pau Pays de Béarn-eko zuzendari artistiko Frédéric Morandok; l'Orchestre de Pau Pays de Béarn-eko Mezenas Klubeko lehendakari Christian Roussille-k; Paueko Udaleko zinegotzi Jean Lacostek; Paueko Udaleko zinegotzi eta Palais Beaumonteko administratzaile Jean Lacostek; Paueko Udaleko zinegotzi eta Beaumonteko presidente Odile Denis-ek; Paueko Udaleko zinegotzi eta Beaumonteko administratzaile Jean Paul Brinek eta Palais Beaumont eta SEM Zénith-ko finantza-aholkulari Robert Chevalere-k.

Nafarroako ordezkariak, berriz: Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari eta NICDO SL – Baluarteko lehendakari Ana Herrerak; NICDO SL – Baluarteko zuzendari Jose Javier Lacunzak; Kultura, Kirol eta Gazteriako Kabineteko buru Elvira Obanosek; Nafarroako Gobernuko Turismoko Produktuen Marketin eta Garapen Zerbitzuko zuzendari Iñaki Martínez de Virgalak; Baluarteko Komunikazioko zuzendari Esperanza Soroak eta NICDO SLko zuzendari komertzial Mikel Azconak.